

PRENTSA-OHARRA

Lankidetzaren I. Plan Zuzentzailea izango du Iruñeak, 6 jarduketa-ildorekin eta 31 helburu estrategiko zein adierazlerekin, Udalaren elkartasuna finkatu eta zabaltzeko

Garapenaren aldeko Lankidetzara bideratutako aurrekontua handituko du Udalak hurrengo 4 urteetan, Udalaren aurrekontuaren % 0,8a jo arte

Iruñeko Udalak Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzaren lehen Plan Zuzentzailea egin du, Udalak arlo horretan egindako ibilbidea jasotzen duen agiri bat, jarraitutasuna eman eta erronka berriei heltze aldera. Sei jarduketa-ildorekin eta 31 helburu estrategiko zein adierazle dituen agiri bat da, eta horien bidez Udalak garapenaren aldeko lankidetzaren politika sakonean landu eta zabaltzeko nahi du, hurrengo lau urteetarako ezarri den estrategia-esparruaren barruan.

Gizarte Ekintzako Alorreko zinegotzi ordezkari Edurne Eguinok, Alorreko zuzendari Marisol de la Navak eta lankidetzako udal-teknikari Javier Gazteluk gaur goizean, prentsaurrekoan, Tokiko Gobernu Batzarrek onetsitako agiria aurkeztu dute, zeina 2017ko bigarren erdialdean abiatutako prozesu partizipatibo baten fruitu baita, non parte hartu baitute Iruñeko Garapenaren aldeko Gobernu Kanpoko Erakundeek (GGKE) eta Nafarroako GGKEen koordinakundeak (CONGDN), Hegoaldeko tokiko kideek, Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Kontseiluak, Udaleko alorrak, Nafarroako Gobernuak, instituzioek, gizarte-plataformek, sektore akademikoak (NUP), Garapenerako Lankidetzako Nafarroako Toki Funtseak, eta Iruñeko beste entitate batzuek.

Udaleko Garapenaren aldeko Lankidetzaren Programaren gaineko urte eta erdiko hausnarketa-prozesuaren eta lanaren ondorio da Plana. Emaizta plan adostu, garden eta malgu bat da, zeinak Udalak 1996. urteaz geroztik esparru horretan egindako lana jaso eta sistematizatzen baitu. Plan hau egitea bultzatu duen azken helburua izan da Udalari ematea orain arte egindako lana finkatu eta sistematizatzeko tresna bat,aldi berean oinarri gisa erabil daitekeena etorkizun hurbileko erronka berriak planteatzeko. Hori horrela, lan-metodologia estrategiko baten aldeko apustua egiten da, agintaldiaren epe-mugak gaintzen dituen, nazioarteko lankidetzaren bezain espezifiko den jarduketa-eremu batek eskatzen duen moduan. Ikuspegi honek azpimarratzen duen ideia da, beste arlo batzuetan gertatzen den bezala –klima-aldaketa, kontsumo arduratsua, etab.–, tokian tokiko inplikazioa ekintzarako tresna eraginkorra eta ezinbestekoa dela.

1. orrialdea, (e)tik 4





Plana ardatz-agiri bilakatuko da, eta haren bidez azken hogeitun urteetan lankidetzaren arloan egindako lana finkatu nahi da, eta Udalak arlo horretan duen jarduna hobetu. Urtero, Iruñeko Udalak Udaleko Garapenaren aldeko Lankidetzaren Programara aurrekontuaren % 0,7 inguru bideratzen du; 2018an 1.557.526 euro, hots, % 0,76. Kopuru horrek biztanle bakoitzak 7,66 euroko ekarpena egiten duela esan nahi du. Plan Zuzentzaileak kopuru hori pixkanaka handitzea proposatzen du, 2021. urtean Udaleko Garapenaren aldeko Lankidetzaren Programara bideratutako kopuruak Udalaren aurrekontuaren % 0,8 jo arte.

Planaren helburuak

Lankidetzaren Plan Zuzentzaileak hurrengo lau urteetan jarraitu beharreko ildoak ezartzen du, Udalaren jardunaren bide-orri eta erreferentzia-esparru gisa balio du, garapenaren aldeko lankidetzaren eta hezkuntzaren arloan. Plan horrekin, Udalak baditu helburu eta adierazle zehatz batzuk, epe ertainean neurtu daitezkeenak. Horrek betetze-maila, eraginkortasuna eta inplikazioa ebaluatzen lagunduko du, eta gardentasuna eta kontu-ematea bermatu.

Planak orain arte egindako lanari jarraipena eman nahi dio, GGKEk oso positiboki baloratu duten lana, alegia. Prozesu partizipatiboaren emaitzek jasotzen dutenaren arabera, Iruñeko GGKEen % 87k uste du Udalaren Garapenaren aldeko Lankidetzaren Programaren funtzionamendua, 20 urte hauetan zehar, "ona" edo "oso ona" izan dela. GGKEek bereziki baloratu dituzte alderdi hauek: Udalaren aurrekontuaren % 0,7a mantentzeko konpromisoa eta ahalegina, baita duela gutxiago krisi garaian ere; Udaleko teknikarien malgutasuna, gertutasuna eta profesionaltasuna; diru-laguntzen ikuspegi erreala eta praktikoa; zein herrialdean jardun erabakitzeak irekitasuna eta malgutasuna; eta elkarrikerarako eta informazioa emateko guneak izatea.

Lankidetzaren Plan Zuzentzailearen sei ildo estrategiko nagusiak honako hauek dira: apustu egitea Hegoaldean egiten diren lankidetzaren jardueren jasagarritasun eta koherentzia handiagoaren alde, tokikoan enfasia jarrita; garapenaren aldeko hezkuntza eta sentsibilizazio indartzea, funtsezko estrategia gisa; Udalaren Lankidetzaren Programak babestutako ekintzen kalitatea hobetzea, GGKEak indartuta eragile giltzarri gisa; beste entitate eta ekimen batzuekiko koordinazioa eta osagarritasuna indartzea; herritarren eta Udaleko beste Alor batzuen arteko ezagutza eta gardentasuna areagotzea; eta Garapenaren aldeko Lankidetzaren Udako Kontseilua suspertzea, Iruñeko eragile giltzarrien arteko eztabaidarako eta informazio trukaketarako oinarritzeko foro gisa.

Illo estrategiko horietako bakoitzak helburu zehatzak ditu, hauek besteak beste: Hegoaldeko toki-entitateekin hainbat urtetarako programen pisua areagotzea; garapenaren aldeko hezkuntzaren ekintzak sustatzea hainbat urtetarako; heziketa- eta sentsibilizazio-jarduerak indartzea eta gizarte-entitateak zein -plataformak nahastea haien garapenean; jarduketan ikusgaitasuna handitzea online tresnak eta sare sozialak erabilia; programa eta ekintzen ebaluazioak egitea; lankidetzaren instituzionala hobetzea; eta Udaleko Garapenaren aldeko





Lankidetza Programaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko osagarritasuna sakontzea, gai honi dagokionez.

Plan Zuzentzaileak jasotzen dituen 31 helburu estrategiko horietako bakoitzarendako jomuga zehatzak, adierazleak eta ekintzak ezarri dira, datozen lau urteetarako. Zentzu horretan, Hegoaldeko toki-entitateekin hainbat urtetarako programen aurrekontua % 9tik % 12ra igotzea planteatzen da, edo onartzen diren proiektuen % 40k tokiko entitateak indartzeko elementuak benetan txertatuta izatea.

Urteko plan operatiboak

Plan Zuzentzailea urteko plan operatiboen bidez gauzatuko da. Orokorrean, jarduketa modalitateak ez dira aldatzen orain arte egiten zirenei dagokienez: lankidetza Hegoaldean, garapenaren aldeko sentsibilizazioa eta hezkuntza, laguntza humanitarioa eta larrialdietako laguntza, eta beste ekintza osagarri edo lagungarri batzuk.

Lankidetza Hegoaldean modalitatea izan da historikoki jardunaren ardatza (urteko aurrekontuaren % 80-85arekin). Plan Zuzentzailearekin herrialde eta esparru geografikoen inguruko malgutasuna mantenduko da, Giza Garapenaren Indize baxua edo oso baxua duten komunitate eta udalerriei laguntza emanez, eta ardatz hartuta oinarritzko gizarte-premiak asetzea (hezkuntza, osasuna, ura eta saneamendua, etxebizitza, etab.), herritarregandik ahalik eta gertuen, eta tokiko gobernuak eta gizarte zibila indartzea. Modalitate hau batez ere GGKEei emandako diru-laguntzen bidez gauzatuko da, izan urtekoak izan hainbat urtetarako, baina hitzarmenen bidez, funtsetara ekarpenak eginez eta beste jarduera batzuen bidez ere bideratu ahal izango da.

Plan Zuzentzaileak garapenaren aldeko sentsibilizazioa eta hezkuntza indartzea aurreikusten du, zeinera aurrekontuaren % 10 inguru bideratzen ari baita. Hezkuntza eta sentsibilizazioa herritartasun globala eraikitzeke tresna gisa hartuta antolatuko da, non landuko baitira garapen jasagarria, bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua. Modalitate hau GGKEei emandako diru-laguntzen bidez gauzatuko da –unean uneko, urteko zein hainbat urtetarako ekintzetarako–, baita hitzarmen zuzenen bidez –batez ere Nafarroako GGKEen Koordinakundearekin– eta udal programaren ekintza propioen bidez ere.

Laguntza humanitarioari eta larrialdietako laguntzari dagokienez, Plan Zuzentzaileak modalitate horren eraginkortasuna, bizkortasuna, malgutasuna, koordinazioa eta osagarritasuna hobetzea bilatzen du. Lehenetsunez garatuko da, GGKEei emandako diru-laguntzen bidez.

Lankidetza Programaren 20 urteen balantzea

Plan Zuzentzaileak Udaleko Garapenaren aldeko Lankidetza Programaren 20 urteetako datu eta estatistika nagusiak ere jasotzen ditu. Datu horien arabera, lankidetzarako urteko deialdietara aurkeztutako 10 proiektuetatik 6 babestu izan dira gutxi gorabehera, eta joera horrek gora egin du urteek aurrera egin ahala (lehen urteetan % 50 baino gutxiago zen, eta





azken urteetan % 65-70era heldu da). GGKEei dagokionez, lankidetzarako urteko deialdietako entitate eskatzaileen % 70ak udal programaren babesa jaso du.

Banaketa geografikoari dagokionez, Giza Garapenaren Indize baxuena duten Erdialdeko Amerikako eta Hego Amerikako herrialdeak lehen postuetan daude: Peru, El Salvador, Nikaragua, Guatemala, Kolonbia, Bolivia eta Ekuador. 1996-2006ko epean babestutako proiektuen banaketa aztertuz gero, antzeko banaketa bat ikusten da, herenetan egina, hiru eskualderen artean: Hego Amerika (% 37); Mexiko, Erdialdeko Amerika eta Karibe (% 30); eta Afrika (% 28, goranzko joerarekin).

Sektorekako banaketari buruz, nabarmentzekoa da oinarritzko premiak asetzearena, nagusiki hezkuntza eta osasuna, barne hartuta herritarrak eta ugalketa-osasuna (diruz lagundutako proiektuen % 40). Horiei gehitzen zaizkie urarekin eta saneamenduekin zerikusia dutenak, elikadura-laguntza, eta beste zerbitzu eta azpiegitura sozialak (% 20). Oinarritzko gizarte premiak asetzearekin batera, badira, baina neurri txikiago batean, ekoizpeneko eta garapen ekonomikoko proiektuak, batez ere nekazaritzara zuzenduak (% 8). Halaber, zeharkako beste bi sektore babestu dira, baina esanguratsuak garapenaren aldeko lankidetzaren arloan: gizarte zibila indartzea; eta emakumea eta garapena.

Iruñean, 2018ko otsailaren 21ean

